

3/90 ZIRKULARRA, azaroaren 14koa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzarena, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeek beren aktiboak merkatuko prezio errealean balioztatzeko jarraitu behar dituzten arauak jakinarazten dituena.

Eusko Legebiltzarrak, Gizarte Segurantzaren sartu gabeko mutualitateei dagokienez, Konstituzioak eta Autonomia Estatutuak ematen dizkien ahalmenei jarraikiz, eta bere eskuduntzak erabiliz, urriaren 27ko 25/1983 Legea egin zuen, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeei buruzkoa.

Lege horretako 19. artikularekin bat, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeek (aurrerantzean, BASE) jardueraren eta ekonomia- eta finantza-egoeraren kontrola eta segimendua egiteko ardura duen organoa Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila da.

BASEei, barne-kontrolerako ondorioetarako, beren aktiboak merkatuko prezioan balioztatzeko aukera eskaintzearen, beharrezkoa da hurrengo arauak jakinaraztea, uneoro, elkartekide bakoitzaren eskubide bateratuen zenbatekoa jakin ahal izateko.

Jakina denez, Planen eta Pentsio Funtsen Legean ezarritakoari jarraikiz, aukera hori ekarpen definituko planak dituzten BASEentzat baino ez da aurreikusten, eta ez prestazio definituak ematen dituzten erakundeentzat.

Hala ere, “eskubide bateratuak” terminoa Planen eta Pentsio Funtsen Legeko espezifikoa da. Hor, funtsaren jabetza partaideena da, eta zalantzarik gabe, BASEekin ere antzekoa gertatzen da. BASEaren ondarearen jabetza erakunde horrena den arren, hori ez da oztupo BASEaren ondarearen gutzitza gainean elkartekide bakoitzak duen eskubideen zati proportzionala eman ahal izateko.

Horretarako, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak zehaztu du honakoa jakinaraztea:

- 1) Finantza-inbertsioen benetako balioa jasotzen duten hurrengo kontuak sortzea.

27. FINANTZA-INBERTSIOEN BALIOZTATZEA DOITZEA.

270. Finantza-inbertsioen balioztatzea doitzea.

Inbertsioak merkatuko prezio iragankorretan zenbatzean azaleratzen diren gainbalioak jasotzeko kontu iragankorra.

Honako hau da mugimendua:

Egindako inbertsioetan sortutako gainbalioengatik kargatuko da, 350 zenbakiko “Beste hornidura tekniko batzuk” konturako ordainketarekin.

Ordainduko da:

- a) 350 zenbakiko “Beste hornidura tekniko batzuk” kontura, aldez aurretik zenbatutako gainbalioen murriztapenagatik.
- b) Ekitaldiaren amaieran, aldez aurretik zenbatutako gainbalioak islatzeko ardura duen 2. taldeko azpikontuaren kargura.

Ekitaldi bakoitzaren hasieran, kontu hori berriro ireki beharko da. Aurreko ekitaldiaren amaieran zuen saldoarekin kargatuko da, aldez aurretik zenbatutako gainbalioak islatzeko ardura duen 2. taldeko azpikontuaren kargura.

271. Prima periodokatzearen doikuntza.

Errenta finkoko tituluen erosketako balioaren eta titulu horien ordainketa-balioaren eta erosketa-data arteko kupoi korrituaren baturaren diferentzia islatuko duen kontua.

Honako hau da mugimendua:

Lehen adierazitako diferentziagatik kargatuko da, eta egiten diren periodokatzeengatik ordainduko da, 678 “Finantza-inbertsioen balio-galtzea” zenbakiko kontuaren kargura.

678. FINANTZA-INBERTSIOEN BALIO-GALTZEA.

Periodokatu beharreko primaren zenbatekoa islatzeko kontua.

Prima-periodokatzeengatik kargatuko da, 271 zenbakiko “Prima periodokatzearen doikuntza” konturako karguarekin.

Erakundeek, oharren orrian, balantzeko positiboan zenbatutako zenbatekoaren guztizkoa xehekatu beharko dute, honakoen gainean:

- a) Beste hornidura tekniko batzuk, Emaizten Kontuaren bidez hornituak.
- b) Beste hornidura tekniko batzuk, balio zorroan egindako balio-handitzeen kontabilitate-kontrapartida gisa.

Egindako balio-handitzeen kontabilitate-kontrapartida gisa “Hornidura matematikoak” kontua hautatu ordez, “Beste hornidura tekniko batzuk” kontua hautatu da. Izan ere, “Hornidura matematikoak” kontua biziaren adarrerako baino ez da, eta kuoten eta arriskuen arteko etorkizuneko oreka lortzeko helburua du. Finantza-ekarpenen planetikiko BASEek ez dutenez arriskurik hartzen, egokiagoa da “Beste hornidura tekniko batzuk” kontua erabiltzea. Lau digitutan ezarriko da 3501 zenbakiko “finantza-ekarpeneko banakako planetarako hornidura” azpikontua; hor jasoko dira inbertsio-zorroko gainbalioak. Azpikontu horrek ezingo du inola ere ikur negatiborik izan; izan ere, titulu bakoitzaren benetako balioa eskuratze-prezioa baino txikiagoa bada, finantza-inbertsioen balio-galtzeagatik hornidura egokia zuzkituko da diferentziagatik.

- 2) Aldez aurretik sortutako kontuak 1990eko azaroaren 15ean sartuko dira indarrean, eta banakako aurreikuspen-planak dituzten BASEek nahitaez bete beharko dituzte.

GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARIA

Pedro María de la Torre